Los franceses no se detuvieron hasta Miranda, y hubieran seguido adelante sin las noticias de Cataluña, nada favorables á ellos después de la batalla de Pontós, y sin las que pocos días después daban por terminada la lucha con el tratado de paz de Basilea.

JOSÉ GOMEZ DE ARTECHE.

(Se continuará)

GORANTZIAK

Neure adiskide maite On Leonardo Artiach, eta bere andra on Errepublika Arjentinako San Nikolas de Arroyoses bizi diranai.

Ogetamasei urte or egiñ
Arren, ¡o! neure laguna!
Dakit gaur bere zelan zarrean
Euskara maite dozuna:
Dakit biotzez zelan deutsazun
Berari maitetasuna,
Bera dalako amari edan
Zeuntsan berbeta kutuna,
Titiaz naste gorputz ta ariman
Umetan sartu jatzuna.

Erritar onak legez ametan
Gaituzulako zuk bada,
Etorri ziñan emazteagaz
Igaz gu bisitetara
Topau zenduan erri au, baña,

Ez bertan ama laztana,
Anchiña illda joan zalako
Emendik zeruetara,
Lur triste oni agur eginda,
Betiko glorietara.

¡O! ze gozoa izango jatzun
On Leonardo maitea!
Zure amachok beso biakaz
Bere kolkoan batzea!
Munduan gusto guztiak baña;
Aiñ da gach eskuratzea,
Errazago da gaur pobretu, ta
Biyar aberastutea,
Jarichi baño erbeste onetan
Zoriontasun betea.

Igazko udan baña andreaz
Ona zu etorritiak,
Pozez ipiñi zituzan zure
Iru arreba maitiak;
Ezagun eta senide danak
Gañera adiskidiak,
Berba batean poz artu eban
Ochandioko jentiak,
Alan ezpada esan daiala
Bertan bizi dan guztiak.

Zeugaz batera zure Felipak,
Lagun zar maitegarria,
Ikusi deusku prestua dala
Zu jayo ziñan tokia;
Dala langiña, dala zintzoa,
Argi, zoli ta garbia;
Dala Españan beti ederren,
Gure Euskaldun erria,
Bestelan onuntz ¿zergaitik dator
Udan jentetza andia?

¡O! ze politak baita bere emen
Diran echalde zuriak!
Leku goyetan baita ermita
Anchiñakoak jarriak!
Zeuk begiakaz ¿ez dozuz barriz
Ikusi erromeriak,
Zelan batuten diran millaka
Euskaldun fedez biziak,
Zar eta gazte adoretara
Santu beneragarriak?

¡O! zeiñ ederrak diran emengo
Erreka murmurlariak!
¡Zelan ditugun fabrikaz jantzi
Chikiak zein da andiak!
¡O! ze galantak bañu-echeak
Iturrietan jarriak!
Eta ¿ez dozuz zuk zeuk ikusi
Gure tren chistulariak,
Erri biurtu deuskuezanak
Baso, ach, eta mendiak?

¡O! ze gustora bere ikusi
Dituzun emen plazetan,
Munduan diran pelotaririk
Onenak partiduetan!
Aurreskugiñik aurrenengoak,
Dantzan egiñaz jayetan,
Bertsolariak bere ¿ez dozuz
Ikusi pozez kopletan,
Guztiz egogi, oso arira,
Botiaz zortzikoetan?

Ikusi dozu Bilbo bere, ta
Donostiako uria,
Iruñan eta zeiñ Bitorian,
Ikusteko dan guztia;
Aiñ asko azi ditugulako,

Lenak ez dira gaur iya,
Eta onelako uri ederrez,
¿Au ez da miragarria?
Lau erri buruz ¿nun da beste bat
Lur bat aiñ zoragarria?

Ausē da, neure adiskidea,
Zu jayo ziñan Erria,
Amerikara zeñek bialdu
Ugari daben argia;
Beronen seme askok jarichi
Or ebelako gloria,
Zabalduagaz bazter danetan
Kristiñau jakituria,
Orain ederto gozetan dabe
Danak goyetan saria.

Au da Artiach, zure Erria,
Izarrez dana jantziten,
Au da Laurak-bat euskaldun izen
Ederraz dana deituten,
Izena zuek bere *Laurak-bat,*
Or badozue zainduten,
Lau eskugazko kurutze baten
Zareela zintzo lotuten,
Euskal arraza, arraza danen
Zoaze ispillu ipinten.

Beñik beiñ emen gura genduke
Laurok batera aurrera,
Izan, da zaindu kurutzedun dan
Gure Arbola ederra;
Gu illda bere gure semeak
Jarraitu dayen onela,
Deitu dagien emen zeiñ da or
«Gernikatarrak gu gera,
Arich Arbola kurutzeduna
Dalako gure bandera».

Agur, egiten deutsut emenche,
Erritar laguncho zarra;
Baña barriro igaz legeche,
Emen batuko al gara;
Bitartean guk daukagulako
Ur-zelai guztiz zabala,
Badakit noz nai iragotea
Ori aiñ erraz ez dala;
Baña zuk laster egiñ dagizun
Zeruak gura daiala.

Zeure andra on, ona Felipaz,
Igaz irago zenduan,
Guztiz ondo ta nik artu neban
Poz bat andia orduan;
Zergaitik zuen maitetasuna
Beti daukadan barruan,
Esker oneko euskaldun batek
Zor deutsuedan moduan,
Bazkari eder zuekaz janak
Ditudalako goguan.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1893-ko Apirillean.

***

VERSIÓN CASTELLANA

RECUERDOS

á mis queridos amigos D. Leonardo Artiach y señora, residentes en San Nicolás de los Arroyos (República Argentina)

A pesar de haber vivido treinta y seis años en esa tierra, sé, amigo mio, que eres amante de la lengua euskara: sé que el amor que le

profesas arranca del corazón, porque esa lengua es la dulcísima que libaste, con el jugo lácteo, en el seno materno, haciéndola parte y substancia de tu espíritu.

Ese amor que, como buen compatricio, nos profesas, te trajo el año último en unión de tu esposa, á visitarnos. Aquí encontraste tu pueblo; mas ¡ay! que ya no se hallaba en él la madre de tu corazón, muerta hace ya años, y gozando de la dicha en las regiones celestiales, después de dar el último adios á este triste mundo.

¡Oh cuán dulce te hubiera sido, amado Leonardo, estrechar en tus brazos á tu dulce madre, y unir tu corazón con el suyo! Mas no puede alcanzarse en este mundo el cumplimiento de todos los deseos. Más fáciles son los vaivenes de la fortuna, y subir rápidamente de la pobreza á la opulencia, que no alcanzar en este destierro la plenitud de la felicidad.

Cuando, en unión de tu esposa, viniste el verano último entre nosotros, llenáronse de gozo tus tres queridísimas hermanas: gozo que se comunicó á todos tus parientes, amigos y conocidos, y al pueblo entero de Ochandiano, como lo demuestran las manifestaciones unánimes de todos sus habitantes.

Así como tú, ha podido ver tu Felipa, ¡oh antiguo y predilecto amigo! ha podido ver la honradez que enaltece al pueblo en que naciste. Ha podido ver la laboriosidad, la agudeza, la perspicuidad y pureza de sus hijos; y que en toda España no hay región más hermosa que nuestra Euskal-erria, según lo comprueba el número considerable de forasteros que vienen á él en la época estival.

¡Oh cuán pintorescos son aquí los blancos caseríos! ¡y las ermitas antiquísimas levantadas en las alturas! ¿No has visto con tus propios ojos nuestras romerías, en las cuales se reunen miles de euskaldunas llenos de fé, mezclándose jóvenes y viejos á adorar y venerar á los santos?

¡Oh cuán hermosos son los arroyos murmuradores! ¡Cómo los hemos poblado de fábricas de toda especie! ¡Oh cuán espaciosos son

los establecimientos de baños que hemos levantado junto á los manantiales! ¿Y no has visto nuestros rápidos trenes que se deslizan silbando, y convirtiendo en pueblo selvas, rocas y montes?

¡Y cuán sabroso te ha sido contemplar en nuestras plazas la habilidad de los primeros pelotaris del mundo! Y los más diestros aurreskularis, que danzaban los días de fiesta; ¿y no has visto también con placer á los bersolaris, que con rara habilidad y facilidad admirable, departían entre sí en metro de zortziko?

Has visto Bilbao, San Sebastián, Pamplona y Vitoria con todo cuanto de notable contienen: mas como les hemos dado tal impulso y desarrollo, casi no parecen las mismas poblaciones de antaño; ¿y no es admirable una región con ciudades tan hermosas, con capitales tan adelantadas que es difícil encontrar otras que las superen?

Esta es, amigo mio, esta es la tierra en que naciste: ella ha enviado abundante luz á las tierras americanas, alcanzando, por medio de muchos de sus hijos, gloria no escasa, y difundiendo por doquier la sabiduría de Cristo, para gozar hoy en el Cielo del premio, á que se hicieron acreedores.

Esta es, Artiach, esta es tu tierra, que resplandece como vestida de estrellas: esta es la tierra que se decora con el hermoso nombre euskaro de *Laurak-bat.* Si vosotros velais también con cuidado por ese nombre de *Laurak-bat* que habeis ahí trasplantado, y os enlazais vigorosamente por medio de la Cruz de cuatro manos, ireis poniendo á la raza euskara por espejo de todas las razas.

¡Sí! Quisiéramos proseguir nosotros unidos formando el *Laurak-bat,* y conservar el hermoso Arbol que tenemos coronado por la Cruz; para que, después de nuestra muerte, continúen lo mismo nuestros hijos, exclamando por rodas partes: «descendemos de Guernica, porque nuestra bandera la constituye el Roble con la Cruz».

Adios, te digo ahora, antiguo amigo y paisano: mas quiera Dios que otra vez como el año pasado podamos reunirnos aquí: como hay antre ambos la llanura inmensa del Océano, sé que no es sobrado fá-

cil la satisfacción de ese anhelo, mas ¡quiera el Cielo que puedas tú cumplirlo pronto!

Con tu digna esposa Felipa atravesaste felizmente el proceloso mar, dándome con ello muy grande satisfacción: á fuer de buen euskalduna no me olvido de vuestras atenciones, ni del afecto que me demostrasteis, ni de los repetidos obsequios con que quisisteis agasajarme, y he querido ofreceros un tributo de gratitud.

CURIOSIDADES BASCONGADAS.

PREGUNTAS 83, 84 Y 85

83 ¿Tiene algún fundamento la opinión sustentada por el historiador Lope Martinez de Isasti al afirmar que Miguel Lopez de Legazpi, Conquistador de Filipinas, era hijo de la villa de Legazpia?

84 ¿Cuándo nació Miguel Lopez de Legazpi?

85 Cuando murió dicho Legazpi ¿era viudo y sin hijos, conforme afirman Gorosabel en su *Diccionario* y Soraluce en sus *Últimas líneas?*